

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Angelita Iriondo Kortaberria

*Eibar,
Gipuzkoa
(1941)*

Aurkibidea



Biografia



Eibarko Azitain auzoko Aiaga (Aixa) baserrian jaio zen 1941ean. Aita, Segundo Iriondo, bertako baserrikoa zuen eta ama, Maria Kortaberria, Maltzagako Sagartegieta (*Sartei*) baserri-jauregikoa. Bere bizi guztia Eibarko auzune horietan igaro du. Eskolako lehenengo urteak Urkizun egin ostean, baserriko ardiak zaintzen ibili zen hiru urtez eta gero Maltzagako eskolara joan zen, Maria Antonia Torregarai maistrarekin. 15 urterekin Gamma fabrikari sartu zen lanean, hori ere Azitain auzoan, bizikletak egiten. Hantxe ezagutu zuen Eibarrera lanera etorri eta gero bere senar bihurtuko zen Manuel Ruiz Gomez (Villanueva de Tena, Burgos). Gamma handik urte gutxira itxi zenez, orduan Trust kartutxo-fabrikara joan zen beharrera, hori ere Azitain barrenean, euren baserriko lurretan eraikia, eta han jardun zuen 1960-1963 bitartean, ezkondu arte. Ordurako familia osoa Azitaingo ermita osteko etxeetan bizi zen, 1958 inguruan Aixa baserriaren horma bat erori zelako. Aixa baserria 1970 hamarkada hasieran bota zuten, A-8 autopista egiteko.

Zintak

EIB-759

- **Proiektua:** Egoibarra - Eibartarren Ahotan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sapsootham, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2026-03-16
- **Iraupena:** 118 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com